

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure produktuaren balorezko proposamenaz hitzegiterakoan, balioa guztiz kualitatiboa dela esan dezakegu, gure asmoa jesarlekuetan berrikuntza garrantzitsu hau aurrera eramatea delako. Eta berrikuntza hau jesarlekuen kalitatean oinarritzen da.

Beste alde batetik, gure enpresak eskaintzen dituen jesarlekuak gainontzeko enpresek eskaintzen dituztenekin konparatuta abantaila hauek dituzte:

- Hasteko, askoz aurreratuagoak dira, teknologia iraultzaileak erabiltzen ditugu hauek sortzeko.
- Apur bat garestiagoak izan arren, erabiltzaileek pozik egongo dira, eta udaletxeek, eskolek, dendariak... haiekiko duten laguntasuna eta solidaritatea erakusteko aukera izango dute.
- Guztiz seguruak dira, saldu baino lehen froga zorrotz batzuk egiten dizkiegulako, bezeroei ahalik eta kalitate hobereeneko produktuak eskaini ahal izateko.
- Etxerik ez duten pertsonentzat aparatu ideala izan daiteke, gauetan hotzik ez dutelako izango banku hauetan lo egin dezaketelako.

Teknologia berri hauei esker, jendeari zerbitzu askoz hobetua eskaintzeko aukera izango dugu, izan ere, edozein banku ez da gai pertsona bakoitzaren tenperatura neurtzeko ezta horren arabera berea moldatzeko. Horregaitik, gure bankuak garai berri bat dakartzate jesarleku-merkaturako.

